

1. UNITATE TEMATIKOA

INGURU- MENA ETA OSASUNA

CREASALUD



Edizioa: **Farmamundi 2020.**

Diseinua eta maketazioa: **Labox Marketing y Comunicación.**

Lan hau **Creative Commons** lizentziarekin dago:



CC BY-NC-SA (Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin)

Lizentzia honek beste batzuei bide ematen die haren obran oinarri hartuz nahasi, egokitu eta eraikitzeko, helburuez-komertzialetarako, betiere egile-tza aitortuta eta sortzen diren lan berriak baldintza bereko lizentzia baten pean jarrita.

Finantzatzaileak:



AURKIBIDEA

1.	SARRERA	4
2.	BALIABIDEAK	5
3.	TESTUINGURU APUR BAT	6
4.	IKASGELAKO JARDUERAK	9
	4.1 DESKRIBAPENA	
	1. Jarduera: JOLASA, PUZZLEAK	
	2. Jarduera: EZAGUERA ERAIKIZ	
	3. Jarduera: OSOKO EZTABAIDA	
	4. Jarduera: AZKEN ONDORIOA	
5.	BIBLIOGRAFIA	14

1. SARRERA

Osasunaren eta ingurumenaren arteko erlazioaren inguruan ikasleekin gogoeta eta ikaskuntzako prozesu kolektibo bat egitera bideratutako zenbait orientabide dituzue honako unitate tematiko honetan.

Unitatearen helburua, beraz, ikasleei osasunaren eta ingurumenaren inguruan gogoeta eginaraztea da, modu integral batean eta abiapuntutzat haien bizipenak hartuta; jolasaren bidez egingo dute gogoeta.

NOLA EGINGO DUGU?

Ezagueraren eraikuntza kolektiborako metodologia bat proposatu dugu horretarako, parte-hartzean, elkarrizketan eta interakzioan oinarritzen dena; hezkuntza-proposamena jolas-izae-rako osagai baten bidez ere antolatuko da.

Puzzle bat proposatzen dizugu osasunaren eta ingurumenaren arteko loturari buruzko gogoe-tarako. Jolastu ondoren, fitxekin lan egingo du talde bakoitzak: zenbait esaldi datoz fitxa horie-tan, osasunari eta ingurumenari buruzkoak, eta, horien arabera, jarrera bat edo bestea hartu beharko dute, eta gogoeta egingo dute, ezaguera kolektibo bat osatzeko denen artean. Gogoe-ta-prozesua amaitu ostean, beren gogoetak eta ondorioak bateratuko dituzte ikasgelako gai-nerako kideekin, eta tarte bat zabalduko da, talde guztiei parte hartzeko tokia egiteko; horrela,

beren ekarpenak egin ahal izango dituzte, eta gainerako ikaskideek landu dituzten gai-multzoak eztabaidatuko dituzte.

Gida honen hasieran, zenbait eduki teoriko dituzu, ikasgelan jarduerak egiteko eta ikasleen arteko eztabaida sustatzeko lagungarri izango zaizkizunak.

Horrez gain, gogoeta hori ekintza baten bidez gauzatzera bultzatu nahi zaituztegu, ikastetxean, auzoan edo herrian eragina izango duen ikus-entzunezko kanpaina baten bidez. Horretarako, Crea-Salud Maletatxoan txertatu diren Ekintza Proposamenetako bat gelan egitea proposatzen dizugu.

ZER ZEREGIN DUZU ZUK PROIEKTU HONETAN?

Irakasle zaren aldetik, ikaskuntza-prozesua erraztea izango da zure zeregina; horretarako, ikasleek ikasgelan parte hartuz eta gogoetaren bidez lan egin dezaten saiatuko zara, pertsonen arteko errespetuan eta berdintasunezko harremanetan oinarritua.

2. BALIABIDEAK

Proposamen didaktiko honek ikasgelan lantzeko metodologia bat proposatzen du berariaz. Horregatik, unitate tematiko hau garatzeko behar izango dituzun oinarrizko baliabideak dituzu ondoren.

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK:

- > **Gida tematikoa:** gida honetan, euskarri gisa erabil dezakezun eduki tematikoa eta ikasgelan garatzeko jarduerak deskribatzen dira pausoz pauso.
- > **Proposatutako jarduerarako materialak:** material bereziak behar dira zenbait jardueratarako, eta CreaSalud Maletatxoan datoz material horiek, formatu fisikoan nahiz birtualean; ondoren adierazi dizkizugu. Jarduera bakoitzean, zer material behar den adierazten da.
 - > **1. unitate tematikoa, 1.1.-etik 1.4.-ra bitarteko baliabideak: puzzleak**
 - > **1. unitate tematikoa, 2.1.-etik 2.4.-ra bitarteko baliabideak: puzzleetako bakoitzari dagozkion gogoeta-fitxak**
- > **Gida PowerPointen:** ikasgelako lana dinamizatzeko, zure esku jarri dugu jarduera horiek pausoz pauso azaltzen dituen aurkezpen digital bat.

BALIABIDE OSAGARRIAK

Gainera, honako baliabide hauek beharko dituzu **ikastetxean**:

- > Arbela eta arbelerako errotuladoreak.
- > Ekipamendu informatikoa, finkoa nahiz eramangarria.
- > Irudi-proiektagailua.
- > Proiektzio-pantaila.

3. TESTUINGURU APUR BAT

OMEk dioenez, munduko gaixotze- eta heriotza-karga, neurri batean, ingurumen-faktoreekin dago lotuta. Gaixotze-karga horren zati bat saihesteko modua legoke, gizarteko eta ingurumeneko arrisku-faktoreak murrizteko ahaleginak batuko bagenu; esate baterako, etxean erabiltzeko ura biltegitratzea, edo neurri higienikoak hobetzea.

Ondoren, zenbait gako ematen dizkizugu, ingurumen-arazoen, gizakiaren jokabideen eta horiek pertsonen osasunean duten eraginaren arteko lotura uler dezazun. Horrez gain, hainbat esparrutan (energiaren arloan, garraioetan, kontsumoan...) osasunerako erabakigarriak diren ingurumen-alderdi batzuen gainean zerbait egiteak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

LUR PLANETAREN OSASUNETIK ONGIZATERA

Pertsonaren osasuna eta pertsonaren jokaleku den ingurumena estuki lotuta daude. Airearen kalitateak, urarenak, lurarenak, edo ingurune garbi eta osungarrietan bizitzeko modua izateak eragina dute gure osasunean. Bizi garen ingurunearen bidez, hainbat faktoreren eraginpean jar gaitezke, eta arriskutsuak izan daitezke pertsonentzat. OMEk dio urtero-urtero milioika pertsona hiltzen dela ingurumenaren osungaitasunagatik. Airearen, uraren edota luraren esparruetan nahiz funtsezkoak diren horrelako guneetan ingurumenaren kalitatea hobetzen lan eginez, gaixotasunak saihestu daitezke, eta pertsonen osasuna hobetu dezake horrek.

> Atmosferaren kutsadura da Europako ingurumen-arrisku handienetakoa, eta bihotzeko eta biriketako gaixotasunekin lotzen da kutsadura mota hori.

BIZTANLE ZAURGARRIENAK

Ingurumen-arriskuek ez diete berdin eragiten pertsona guztiei; aitzitik, indar handiagoa hartu ohi dute biztanle zaurgarrienengan edo sozialki okerren daudenengan.

Pertsonen egoera sozioekonomikoak baldintzatu egiten du ingurumen-faktoreekiko esposizioa. Nutrizio-ohiturek, bizi diren ingurunearen osasun-baldintzek, bizi-ohiturek eta osasunean zeri-kusi zuzena duten gizarte-arrazoi askotarikoek eraginda, zenbait biztanle taldek sentiberatasun handiagoa izan dezakete ingurumen-faktoreen eraginekiko. Jende mota horrek muga handiagoak izan ditzake ingurumen-arriskuak saihesteko edo horietara egokitzeko.

Adinaren faktorea ere kontuan hartu behar da ingurumen-faktoreen eragina aztertzeko orduan, haurrak eta adineko pertsonak zaurgarriagoak izan ohi baitira osasunaren esparruko eragin horiekiko (gainera, haurren garapenean ere eragina izan dezake horrek guztiak).

ETORKIZUN GARBIA, IRAUNKORRA ETA OSASUNTSUA

Pertsona guztiontzat etorkizun iraunkor, garbi eta osasuntsu bat lortzeko, ezinbestekoa da borondate politikoa, herritarren mobilizazioa eta banakako jokabideak bateratzea. Lur planetarekin errespetuz jokatzeko jardunbideak behar ditugu; baliabideen erabilera iraunkorra egiteko modua eman behar dute horiek gainera, gure ongizatea bermatu behar dute, eta pertsona guztien osasuna hobetzea lortu behar dute.

Funtsezkoa da gure produkzio-ereduari buruzko ikuspegia aldatzea, eta osagai gutxi dituzten eta luze iraungo duten produktuen aldeko apustua egitea, behin erabili eta botatzeko alde egin beharrean. Horrez gain, kontuan hartu behar ditugu baliabide berriztagarriak. Energia-iturri garbi eta agortezinak dira, ez dute berotegi-efektuko gasik isurtzen, eta independentzia energetikoa ahalbidetzen dute.

Baliabide berriztagarrietako inbertsioa eta ingurumenaren iraunkortasuna ziurtatzen duten politiken aldeko apustua bermatzeko, ezinbestekoak dira legegintzaren eta politikaren esparruetako jarduketak, bai eta etorkizun iraunkor eta osasungarri bat eraikitzen zuzendutako



4. IKASGELAKO JARDUERAK



4.1 DESKRIBAPENA

Jardueren gida honen helburua osasunaren eta ingurumenaren arteko erlazioari buruzko gogoeta bat eginaraztea da, ikasleen parte hartzea bultzatuz eta jolasaren bidez; horretarako, hainbat jarduera eta talde-lan proposatzen dira:

- 1. Jolasa:** puzzle bat da, jolas bidez osasunarekin eta ingurumenarekin lotutako kontzeptuak txertatzeko.
- 2. Taldeko gogoeta:** osasunaren eta ingurumenaren arteko loturari buruzko zenbait baieztapen biltzen dituzten fitxa batzuk emango zaizkio talde bakoitzari; eta horiez hausnartu eta eztabaidatuko dute.
- 3. Sozializazio kolektiboa:** talde bakoitzak ingurumenarekin eta osasunarekin lotutako gai desberdinak landuko dituztenez, une egokia da egin dituzten gogoetak bateratzeko eta beste taldeen eztabaidetan parte hartzeko, eztabaida horiek aberastuz eta ekarpen berriak eginez.
- 4. Amaierako gogoeta:** jardueri amaiera emateko, gogoeta bat proposatu da, jardueretan zehar landutako kontzeptuak bateratzeko.

Jarduerak taldeka egingo dira, lau talderekin gehienez, eta, eztabaidari edo ikasleen parte-hartzeari zer-nolako sakontasuna eman nahi zaion, saio batean edo bitan egin daitezke.

Gai hau bere osotasunean lantzeko, honako jarduera hauek pausoz pauso egitea gomendatzen dizuegu.

1 JARDUERA: JOLASA, PUZZLEAK



Iraupena:
10 minutu



CreaSalud Maletaxoko baliabideak:
puzzleak (1. unitatea, 1.1.-etik 1.4.-ra bitarteko baliabideak)

Jarduera hauxe izango da ikasleen gogoetaren abiapuntua: puzzleetako irudien bidez, ingurumenarekin eta osasunarekin lotutako kontzeptuak aurkezten zaizkie.

PAUSOAK

- 1 Osatu taldeak ikasleen artean; lau talde gehienez.
- 2 Banatu lau puzzleak taldeetan (1. UNITATE TEMATIKOA, 1.1.-etik 1.4.-ra bitarteko BALIABIDEAK); 4 talde ez badituzu, puzzle bat baino gehiago bana diezazkiokezu talde bakoitzari.
- 3 Eskatu talde bakoitzari egokitu zaion puzzlea eraikitzeko. Osasunarekin eta ingurumenarekin lotutako elementuak adierazten ditu horietako bakoitzak.



2 JARDUERA: EZAGUERA ERAIKIZ



Iraupena:

20/45 minutu (eztabaidari eman nahi diozun sakontasunaren eta ikasleen interes eta parte-hartzearen arabera)



CreaSalud Maletatzoko baliabideak:

Baieztapenen fitxak (1. unitatea, 2.1.-etik 2.4.-ra bitarteko baliabideak)

Jarduera honen helburua zera da, talde bakoitzari ingurumenaren eta osasunaren arteko loturari buruzko gogoeta eta eztabaida eginaraztea da.

PAUSOAK

- 1 Banatu talde bakoitzari baieztapenak biltzen dituzten fitxak (1. UNITATE TEMATIKOA, 2.1.-etik 2.4.-ra bitarteko BALIABIDEAK), talde bakoitzak egindako puzzleari dagozkionak.



- 2 Esan talde bakoitzari eman zaion fitxako baieztapenak irakurri behar dituela, eta, baieztapen horrekin bat datozen edo ez kontuan hartuta, jarrera bat hartu beharko dute; beren jarreraren arrazoiak ere emango dituzte. Fitxa bakoitza puzzleetako bati dagokio; beraz, ziurtatu talde bakoitzari fitxa zuzena eman diozula.
- 3 Eskatu talde bakoitzari baieztapenen inguruan eztabaidatzeko, taldean sortzen diren ideia eta gogoeten arabera.
- 4 Hurbildu talde bakoitzarengana, beren gogoeta sustatzeko, debatea pizteko eta eduki berriak emateko, egoki iruditzen bazaizu.

Fitxetan datozen baieztapenek ez dute zertan egia izan. Eztabaida pizteko asmoz idatzi dira, eta polemikoak izan daitezke zenbait kasutan.

OHARRA

Jarraian, talde bakoitzean banatuko dituzun esaldiak aurkeztuko dizkizugu.

1. TALDEA: OSASUNERAKO ETA BIZTANLE TALDE ZAURGARRIETARAKO ARRISKUAK

- > Ingurumenaren egoera txarraren eragina behartsuek soilik jasaten dute.
- > Ez da inor hiltzen ingurumen-faktoreengatik, gure osasunean eragiten badute ere.
- > Hirietan, kutsadurak eragin bera du pertsona guztiengan. Eta zenbait pertsonari kalte egin badiezaioke ere, baditugu osasun-baliabideak erantzuteko.
- > Ur falta ez da osasun-arazo etorkizuneko belaunaldientzat.
- > Klima-aldaketak gaixotasun batzuen kutsadura-ereduak eralda ditzake, eta gure osasuna arriskuan jartzen du horrek.
- > Uste dut jendeak ingurumenerako kaltegarriak diren jokabideak dituela, ez delako gai gure osasunari nola eragiten dioten ikusteko.

2. TALDEA: ELIKADURA ETA KONTSUMOA

- > Ez dut uste klima-aldaketak elikadura-arazorik sortuko duenik etorkizunean. Eta sortzen badu, pertsona behartsuenei eragingo die soilik.
- > Ezinbestekoa da beste herrialde batzuetako produktuak ekartzea, askotariko elikadura izan nahi badugu, eta eragina du horrek ingurumenean. Osasunaren gaineko efektuek konpentsatu egiten dute kutsaduraren efektua.
- > Ondo iruditzen zait janariak ontziratuta eta plastikotan bilduta saltzea; horrela, garbi daudela eta kontsumorako hobeak direla bermatzen dugu.
- > Ez dut uste gure kontsumo modua kaltegarria denik osasunerako eta planetarako.
- > Ez dira bateraezinak ingurumenarekiko konpromisoa hartzea eta batetik bestera joateko ibilgailu pribatuak lehenestea.
- > Agian janari lasterra ez da oso osasuntsua, baina ez dut uste ingurumenari inolako kalterik egiten dionik.

3. TALDEA: KUTSADURA ETA OSASUNA

- > Ingurumen-faktoreek auto-istripuek baino pertsona gehiago hiltzen dituzte.
- > Egunero, gure osasuna degradatzen duten produktu kimikoekiko esposizioan gaude, baina horixe da aurrerapenak ordainarazten digun prezioa; ezin dugu ezer egin.
- > Airearen edo itsasoen kutsadura ez da gure errua, eta, hala ere, ondorioak guk ordaintzen ditugu, gure osasunaren bidez.
- > Kutsadura eta zarata ugari hiri baten bizitzeak estresa edo antsietatea eragiten diolako kexu den jendeak landa-inguru batera joan behar luke bizitzera. Zer espero zuen, bada, hiri batean bizita?
- > Kutsaduraren errua eta, beraz, gure osasunean horrek eragiten dituen kalteena enpresa handiek dute batik bat.
- > Hiri-hondakin gehiegi sortzen dugu pertsonok, eta eragin negatiboa dute bai ingurume-nean eta, beraz, baita gure osasunean ere.

4. TALDEA: ETORKIZUN IRAUNKORRA

- > Gobernuetuei energia berriztagarrietan inbertitzeak sortzen dizkien gastuak ez ditu kontsentsatzen horrek pertsonen osasunean izan ditzakeen eragin positiboak.
- > Birziklatzeak ez du balio ezertarako. Edukiontzietara botatzen ditugun gauza gehienak erre edo lurperatu egiten dira, eta horrek eragin kaltegarriagoak ditu osasunean.
- > Kontsumitzeko orduan, erantzukizunean oinarritutako irizpideei jarraitzen diet, ez soilik ingurumen osasungarria bermatzeko, baita nire osasunean positiboki eragiteko ere.
- > Hirian edo herrian batetik bestera nabilenean, ibilgailu pribatua erabili baino nahiago dut oinez edo bizikletaz joan edo garraio publikoa erabili; positiboa da ingurumenerako eta nire osasunerako.
- > Gobernuetuek eta enpresa handiek interesa dute ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duten politiketan.
- > Guztiok dakigu gure bizimoduak eragina duela gure inguruan eta gure osasunean; ez dugu ezer aldatzen, egoistak garelarako eta, finean, ez zaigula ezer gertatuko uste dugulako.

3 JARDUERA: OSOKO EZTABAIDA



Iraupena:

20/40 minutu (debateari eman nahi diozun sakontasunaren eta ikasleen interes eta parte-hartzearen arabera)

Talde bakoitzak egindako gogoetak eta talde horietan sortu diren eztabaidak bateratzea da jarduera honen helburua; horrez gain, aukera ederra eskaintzen die gainerako taldeei guztien arteko eztabaidan parte hartzeko eta ezaguera eraikitzeko, ikasle guztien parte-hartzea bultzatuz. Hona hemen zenbait pauso, egindakoa bateratzeko; horrez gain, zenbait galdera ere proposatzen dizkizuegu, debatea dinamizatzen laguntzeko.

PAUSOAK

- 1 Eskatu talde bakoitzari osatu behar izan duen puzzlea erakusteko.
 - Zer adierazten du irudiak, haien ustez? Zerk eman die atenzioa irudian?
- 2 Eskatu talde barruan sortu den eztabaida azaltzeko guztiei, zer jarrera agertu diren eta zer gogoeta egin dituzten adieraziz.
 - Baieztapen bakoitzaren aurrean hartutako jarreraren barnean bazegoen adostasunik? Baieztapenetako batzuekin identifikatuta sentitu dira?
- 3 Dinamizatu gainerako taldeen parte-hartzea, gainerako ikasleek debate guztietan parte hartzeko aukera izan dezaten.
- 4 Eskatu talde bakoitzean egindako lanaren ondorio edo laburpenen bat.
 - Laburtu dezakete beren gogoeta hitz edo esaldi batean? Garrantzitsua da beraien ustez banaka nahiz taldean gogoeta bat egitea osasunaren eta ingurumenaren arteko erlazioaz?

Debatea egiteko denbora gehiago baduzu, talde bakoitzak bere gogoeta luzeago azaldu dezake, eta jendea ingurumenaz eta osasunaz sentiberatzeko aukerak proposa ditzake.

4 JARDUERA: AZKEN ONDORIOA



Iraupena:

5 minutu

Jarduera honen helburua lan-saioa ondorio global batekin amaitzea da; talde txikietan eta osoko taldean hausnartutakoa bilduko luke gogoeta horrek.

Atera azken ondorio bat pertsonen osasunaren eta ingurumen-faktoreen inguruan, etorkizun garbi eta osasungarria bermatu beharra eta hori lortzeko gure esku ditugun tresnak azpimarratuz.

- Hauxe izan daiteke "ondorio-eredu" bat: "Zalantzarik gabe, lotuta daude pertsonen osasuna eta horien ingurunea, eta beste hainbat elementuk, hala nola kutsadura maila altuek edo muturreko prozesu klimatikoek, eragina dute oro har pertsonen osasunean eta, bereziki, pertsona zaugarrienengan. Hori guztia aldatzeko, bat etorri behar dute borondate politikoak eta herritarren mobilizazioek, eta ez dugu inoiz ahaztu behar ingurunea, gure osasuna eta besteena zaintzerakoan gutariko bakoitzaren jokabideek duten garrantzia."

5. BIBLIOGRAFIA

- > Osasunaren Mundu Erakundea (2016): Ambientes saludables y prevención de enfermedades. 2. argitalpena.
- > Osasunaren Mundu Erakundea (2018): Comunicado de prensa: Nueve de cada diez personas de todo el mundo respiran aire contaminado.
- > Osasunaren Mundu Erakundea /OPS (2013): Salud, ambiente y desarrollo sostenible: hacia el futuro que queremos.
- > UN Environment (2019): Fronteras 2018/19: Nuevos temas de interés ambiental.
- > María Neira, SEESPAS (2015): Nuestras vidas dependen de la salud del planeta.
- > NBE Ingurumen Programa: www.unenvironment.org
- > Trantsizio Ekologikorako Ministerioa: <https://www.miteco.gob.es/es/>



CREASALUD